

Hitz beste

Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak

MIXERI ETA MAU
Idoia Alzibar
Labayru argitaletxea

Tradizioa eta transmisioa

Aizak eta Aizan (Elkar, Dona-dona saila) liburuan, Anjel Lertxundik tradizioari buruzko definizio moduko hau azaldu zuen: «Aukera eta baliabide ugariak dituen mundu baten aurrean gaude. Bertan daude jasorik, modu bizienean egon ere, gure hizkuntzaren jokatzeko eta jolasteko modu aberatsenak (elipsiak, ironia, erritmoa, estilazazioa, aliterazioa, irudiak, konparazioak...)». Eta gaineratzen zuen hezitzaileok, gurasoekin batera, egundoko ardura daukagula tradizioaren arlo horren ezagutzari dagokionez, baina hain zuzen ere, gero, transmisioan huts egiten dugula nabarmen.

Egokiak eta beharrezkoak dira mundu hori transmititzeko ahaleginak, iraganari lotuak direnak baina, aldi berean, etorkizuna motor dutenak; hala ere, sarritan tokian tokiko tradizioa jasotzeko ahalegin horiek, oso isolatuak izateaz gain, ezezagunak izaten dira, oharkabean pasatzen dira eta, akaberan, zokoratuta geratzen dira, hautsak hartuta, eta horra hor transmisioak porrota. Guri, behinik behin, txiripaz heldu zaigu halako hainbat libururen berri, hala nola Bergarako Udaleko Ume txikientzako kantu eta jolasak, Durangoko Berbarok apailatutako Ume kantuak liburu-diskoa, edota Aezkoa, Erroibar eta Luzaide aldeko Supazterreko eleak, eta ziur gaude beste hainbat lan ederren arrastorik ez zaigula iritsi. Hori dela eta, transmisio lanetan erakargarritasuna eta zabalkundea ezinbesteko gakoak dira, eta Elkar argitaletxearen Dona-dona saila hutsune hori txukun betetzen ari da azken urteotan, edota bi diskorekin oso erabilgarria den



iazko Urrezko giltza liburua (Erein), eta azken honen ildotik –kointzidentziak asko baitira– dator, Idoia Alzibarren eta Labayru ikastegiaren bitartez, *Mixeri eta Mau* ~Ume kantuak eta jolasak~ liburu-DVDa.

Nabarmendu eta biziki gomendatu beharreko liburu honek guztiz betetzen du erakargarritasunaren gakoa: 0-5 urte bitarteko haurrei zuzendua dago, eta haien guraso eta irakasleei, eta honako egitura xume bezain argia du: egoera batean edo bestean erabiltzeko kantuak eta errezipituak –jateko, oinez ikasteko, mina arintzeko...–, hatz eta eskuekin erabiltzeko kantu eta errezipituak, umeekin arre-arre egitekoak, lo kantuak eta, azkenik, umeen hizkerari buruzko atal lagungarri bat. Liburua zergatik den erakargarria? Euskal Herri osotik egindako testu eta errezipituen aukeraketa oso egokia izateaz gain, formatu erabilgarria duelako, hainbat argazki eta partitura lagungarriekin datorrelako, pieza txikiei buruzko azalpenak dakartzalako eta, batik bat, DVD bat daukalako eta imajinei esker egoera bakoitzaz argi baino argiago jabetzen garelako. Hona hemen, esate baterako, gauza bat topatzean eta


horren jabe egitearren esan beharreko formula: «Gauza bat bilatu det/ bost aldiz esango det/ jaberik azaltzen ez bada/ nerretzat gordeko det» (argitu beharra dago hainbat euskalkitatik hartutako pieza txiki horiek alboan batura moldatuta agertzen direla, edo beharrezko oin oharrekin bestela).

Zabalkundea da bete beharreko beste gakoa eta hain zuzen ere asmo hori betetzen laguntzera dator iruzkin hau, baina ahalegin hau Mungiatik Euskal Herri osora behar bezala zabaldu beharko litzateke, transmisioaren betea lortu nahi baldin badugu, liburua gutxienez eskola guztietan eskura egon dadin. Amaitzeko, atzera ere Anjel Lertxundiren hitzak balia ditzakegu: «Altxor tradizionala transmititurik, gure hizkuntzaren sena transmititzen dugu, horretan ez dugu oker jokatzeko arriskurik».

Honaino, beraz, liburu honen nondik norakoak, baina irudipena dugu oraindik ere galdera garrantzitsu bat erantzun gabe dugula: hizkuntzaren sena hizkuntzaren jabe direnek transmitituko dute, baina zer egin dezakete guraso erdaldunek, nola lagun dezakete etxetik prozesu horretan –jarrerak, ekintzak, irizpideak...? Galdakaon aurten ere haurretzat argitaratu dituzten literatur egutegi ederrak direla eta, Yolanda Arrietak horien erabilgarritasunari buruzko hitzaldi bi eskaini zituen, bata guraso euskaldunentzat eta bestea guraso erdaldunentzat, eta bigarren honetan entzulegoa lehenengoaren halako bi izan zen, guraso multzo horretan beharrian handia eta premia dauden seinale inondik ere. Hurrengo batean pozarren emango genuke halako lan erakargarri baten berri.

Laura Sagastume

6+



ZUNI

Pello Añorga

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA

Aizkorri, Bilbo, 2006

Zu eta ni eta gu dena bat

Zuni honen bitasunezko bihotzaren mami eta arima izenburuan du irakurleak: zu eta ni, ni eta zu, gu. Maitasunezko dialektika konpartitu batean eskaintzen du Pello Añorgak poema liburu hau. Poesia baita, izan, Zuni itz gutxiko eta mezu askoko hau, norentzat eta sei urtetik gorakoentzat idatzia. Irakurle guztientzat, beraz; baita entzule ia guztientzat ere.

Uzku eta tentuz ekingo dio ausaz irakurle eskarmentudunak poemarioari. Pentsatuko du agian txikienezko poemarioak ez direla irakurgai ohikoenak. Oker pentsatu ere; idazle gero eta askoren lanez gain, kantzak hor daude, era askotakoak, trinkoak eta minimalak gehienetan.

Zuni poemarioak dentsoa dirudi hasieran. Orriak pasa ahala dentsitatea ez ote den zehaztasuna pentsatuko du irakurleak. Demasako adar eta betegarri egon ohi den sasoiotan zehatz aipatze hutsak hitzezko aniz-

tasuna baino gehiago iradokitzen duelakoan nago.

Zu eta Ni binomioa dialektika eder batean dator orririk orri, naturaren elementuekin batera, batasun intrasferiblean. Naturaren elementuok giza taupadez jantziak datoz eta doaz; eta giza izpiritua naturaren hatsez agertuak doaz eta datoz. Elementu bikoitzak, ahokatuak, desberdinak baina elkarrengandik bereiztezinak, etengabe datoz eta doaz: kanpokotasuna eta barnetasuna, hartu eta eman, zerua eta lurra, itsasoa eta lurra, zu eta ni, argia eta iluna... Joko binomiko etengabeak osatzen du, sinpletasun iradokiorrez, poema liburu eder hau; maitasunaren goraltzea den poema liburua.

«Xirristin-xarrastan» bezalako poema-jolas nabarmenak pittin bat kanpo geratzen dira, baina indar paraleloen eta erritmo bikoitzuaz jantzirik datozenez gustagarriak dira. Badira poema batzuk irakurketa bikoitz nabarmenekoak. Nago nabarmentasuna ez doakiola ondo poemarioari, baina horiek ere gustagarri askoak dira: nire arnasa... zurea... badator... eta badao...

Josu Lartategi

8+



NIRE HIRIKO POEMAK

Ana Urkiza

Pamiela, Iruñea, 2006

Haurrentzako poema-liburu berri batekin datorkigu Ana Urkiza, jolasa eta begi poetikoa uztartuz, ikusmena eta sentipenak kiribilduz, nolabait teko bihotz-begitantze pertsonal eta fina harilkatuz. Liburuaren bi zatien izenburuek ere horixe iradokitzen digute: «Kalekoak» eta «Bihotzekoak». «Kalekoak» sei azpiataletan sailkatzen da: kalekoak, eraikinak, garraiobideak, pertsonak, jolasak, animaliak; hots, kalean zehar ibilbide bat eginez, argazki-kamera/begi poetikoa «instantaneak» eskaintzen ari zaigu. Bigarren atalean ere badugu zenbait azpiatal: bitxikeriak, sentitzekoak, egunarenak, zeruarenak, eguraldiarenak, naturarena; hots, kalea inguratzen duten fenomenoak, sentipenen bidez erakutsiak, lehenengo ataleko argazki-kamera/begi poetiko berberekin.

Poemen eiteari buruz, gehienak haiku tankerakoak dira irudi poetikoaren tratamenduari dagokionez, eta batzuk zen jarrera gorenera iristen dira:

«Luze arnasa
arbolapeko pasealekuan»,

«Gauaren pisuari men
farola burumakurrak»,
«Bailaratik dator trena geltokira
Zarratu du kremaileak hiria»,
«Eskutik helduta bikotea
ahurrean musua gordeta»,
«Bakardadeak
eskuak poltsikora
gonbidatzen»...

Biribilak dira halakoak, irudi poetikoaren erabileraren ikuspegitik. Horrez gainera, tartean-tartean, barneko haur jostariak ahotza goratzen du, xume, eta poema jolastiren bat edo beste, igarkizun-tankerako piezaren bat edo beste, tartekatzen ditu, poemarioaren giroa aldatu gabe:

«Dantzatu nahi?!

Tximeletak ezpainean.
Nahi baduzu / bihar ere bai»,

«Kaleak zabalduz dator
ni-no-ni-no hotsa

kalezuloetan barneratuz larritasunaren
ahotsa» (anbulantzia),

«Hotza dakar menditik ibaiak bizkarean
hotsa darama itsasora eztarian».

Azken pieza hori liburuko biribile-
netakoa da, plano asko biltzen baititu
bere baitan, eta forma eta irudi poetikoa
modu esanguratsuan uztartzen; adibide
egokia da erakusteko nola erabili errima
modu esanguratsuan, eta ez soilik formalismo
hutsez. Ibaia-
ren ibilbideak mendia eta itsasoa
elkarren oihartzun bihurtzen dituen
bezala, hala poemak ere bere neurri
eta errimarekin; eta tartean gu, ibil-
bidearen erdian, eta Heraklito, eta
bizitza...

Juan Kruz Igerabide

8+



LOA, LOA
Jon Suarez
Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA
Gero-Mensajero, Bilbo, 2006

Gurasoak lanean, ama ospitale
bateko sendagile, aita pizzeria bateko
sukaldari. Haur baten ahotik ezagut-
zen dugu eguneroko bizitzan oinar-
ritutako istorioa, oso modu simple
eta apalean.

Haurrak erregistro zuzena erabiliz,
gauzak ikusten duen moduan konta-
tzen ditu.

Bai ama eta baita aita ere oso neka-
tuta itzultzen dira etxera, ordu luzeak,
«tiritak jartzen» edo «olibak eta gazta
pizzei ipini» ostean. Ipuin honetan
aldatuta agertzen dira, eguneroko-
tasunetik abiatuta, normalean gura-
soei egokitzen zaizkien eginkizunak.
Haurrak gurasoak zaintzen ditu,
eguneroko lanak sortzen dien nekea
arintzen saiatzen da, badakielako zein
atsegina den goxo-goxo «amari esne
eta madalena ematea» edo «zazpi
antxumetxoen ipuina kontatzea».

Bitxia da nola haur baten begietan
zainketa lana jolas bihurtzen den, bitxia
da zein maitekiro tratatzen dituen
gurasoak, bitxia da kariño handia
antzematen baitaio istorio osoari.
Eta hori ez da oso ohikoa euskal haur
literaturan.

Ipuin modernoan erabat, egungo e-
rrealitateari zuzenean heltzen diona,
kontraesan eta rolen aldaketak barne.
Aitak ama zaintzen du, etxera iristen

denean; amak gaixoak sendatzen ditu
eta alaba protagonistak, egun batean,
bederen, biak zaintzeko ardura har-
tzen du.

Horrela bada, hirurak afaldu ondo-
ren, haurra da orain nekatuta dagoe-
nea, loak hartzeko puntuan. Orduan
bai, ama umearen alboan da, ipuinari
izenburua emango dion leloa errepit-
katzen: «Loa, loa» abestia amultsuki
kantatuz, alegia.

Bizitzak asko nekatzen baitu. Ondo
lo egin behar da eta ondoan ditugun
pertsona maitagarriak zaindu.

Ipuin ederra, familia berri horietako
kontakizuna, zainketa eta lanen —etxe-
koak zein kanpokoak— banaketari bu-
ruzkoa. Ipuin modernoan ezinbestean.
Aldi berean, Jokin Mitxelena trazu
azkarrek ilustrazioei bizitasun handia
ematen diete.

Apaltasun osoz, istorio berritzailea.
Asun Agiriano

HAN GAN-EN ZALDI MAGIKOA
Chen Jiang Hong
Itzultzailea: AZTIRI itzulpen zerbitzuak
Ttartalo, Donostia, 2006

Negar egin zuen zaldia

Hogeita bost urte igaro dira Joseba Sarrionandiak margolari bikain baten istorioa kontatu zigunetik. Bere marrazkien ondorioz enperadorea erotu zuen margolari haren aurretik ere Marguerite Youcenarrek Wang-Foren istorioa kontatu zigun... Txinako antzinako istorio batetik tira eginez.

Helduen literaturaren mugetan ibili diren margolari txinatar horien ondoren iritsi zaigu Han Gan euskal letretara. Eta Sarriren ipuinean bezala, hemen ere pobrezia eta abilezia eskutik emanda datoz: «Haurra zenean, Han Ganen zaletasunik handiena marraztea zen». Esaldi horrekin hasten da *Ttartalo* argitaletxeak plazaraturiko album zoragarri hau; eta «Enperadore eroa» ipuin gogoangarrian bezala, hemen ere, margolariak bizia emango dio bere pinturari.

Liburu honen argumentua nahiko sinplea da, margolari apartak sorturiko zaldi magiko baten istorioa, hain zuzen. Han Ganek gerlari batentzat sorturiko zaldiaren istorioa eta nola gerlariak eta zaldiak ez duten inoiz zauririk borroka ugarietan. Zaldiak, aldiz, mina du bihotzean, «Baina zaldia triste zegoen. Moztutako buruak ikusten zituen etengabe, erauzitako hankak, zaldi hilak edo zaurituak. Bat-batean, negarrez hasi zen» (31. or.), eta une horretan margo batetik irtendako zaldi magikoak, ihes egiten du, gerla, zauri, samin eta oinazeen mundutik ihes, eta «Enperadore eroa»ko margolariak bezala, atsedean laasatasuna aurkitzen du margolan baten barruan.

Argumentua, beraz, sinplea da, baina ez horregatik landu gabea. Irudiaren eta testuaren arteko oreka, eta elkarren arteko informazio gehitzea oso ongi lortua dago. Arestian aipaturiko zitan, esaterako, guztiz adierazgarria da zaldiaren irudia (gerlariaren bu-



rua ez da agertzen), tonu eta kolore iluneko marrazkian, zaldiaren burua nabarmentzen da, eta batik bat begi argiak, negarrez dauden begiak. Hots, ipuinaren erritmoa eta kontatzen duen istorioaren intentsitatea oso ongi lortuak daude, landuak, irakurleak –irakurle txikiei ere kontatzeko moduko liburua da hau– istorioa jarrai dezan eta, guk geuk egin bezala, sufri edo goza dezan zaldi magikoarekin; normalean uste denaren kontra honelako liburuak, irudi liburu hauek, haurrentzat ez ezik helduentzat ere oso aproposak baitira.

Chen Jiang Hong-ek idatzi eta ilustratu duen liburu honek badu fikziotik (Txinako tradizioetik ere), baina baita errealitatetik. Han Gan benetan, duela hamabi mende baino gehiago, Txinan izaniko margolari bat izan baitzen, eta batez ere zaldiak marrazten zituen margolari honen lan batean, Zaldiak eta zaldizaina, oinarritu da egilea liburu hau egiteko, margolan hura bezala zeta gainean pintatuz. Eta, hain zuzen, horixe da liburu honen beste ezaugarrietako bat, marrazkiak, margoak hobe esanda, Txinako tradizioan oinarriturik eginda daudela, koloreen erabilera, espresioen garrantzia... eta alde horretatik guretzat ere, ekialdeko kultura honetakoentzat, berezia gertatzen da margotzeko era hori. Berezia, baina aberasgarria (*Ttartalo* etxeak azken urteotan, euskal haurrentzat bereziki, egiten ari den eskaintza bezain berezia eta aberasgarria).

Boterea eta indarra baino haratago

norberaren (gizaki nahi animalia) nortasuna, apaltasuna eta izaera defendatzen dituen liburua dugu Han Gan-en zaldi magikoa hau. Liburuko orrialde bakarretan, testu gutxi eta ia hogeitaz irudiren bidez, egileak istorio paregabea kontatzeko abilezia izan du, eta P. Hunt haur literatura kritiko ingeles ezagunak dioen bezala albumaren bidez, haur literaturak literaturgintzari eginiko ekarpen garrantzitsuenaren bidez, Chen Jiang Hongek kontaktuzun xamur eta era berean gordina, hunkigarria eta latza, fikziozkoa eta benetakoa kontatu digu.

Istorioak kontatzeko modua eta gunea aldatu egin den gizarte honetan, liburuak gero eta pisu handiagoa hartzen ari den honetan, U. Eco k zioen gaur egun liburuak direla gure aiton-amonak; hots, liburuak kontatzen dizkigutela istorioak eta ipuinak. Alde horretatik Han Ganen zaldi honen istorioa aparteko edozein aiton-amonak kontatzea bezalako dugu, baina hori baino gehiago, edozein aiton-amonarekin irakur eta gozatzeko era bai.

Haurrak ez du kontatzen diotenean edo berak irakurtzen duenean ulermen gaitasun bera, eta alde horretatik albumak, irudietan oinarrituriko liburuak, oso egokiak dira istorioak kontatzeko. Hauxe dugu horren adibide garbia, baina horrez gain albumek balio dute estetika ezberdinak azaltzeko; eta oraingo honetan Txina aldeko estetika, margotzeko era, koloreen erabilera edo bizidunen espresio moduak, ezagutzeko aukera ederra dugu liburu hau, gizakion bihotzaz, jokabideaz, nortasunaz... ere ari den liburua, negar egin zuen zaldiari buruzko liburua.

Xabier Etxaniz Erle

8 +



MOKO BILDUMA
Jabi Santa Cruz
Ilustrazioak: IÑAKI MERINO
Ibaizabal, Bilbo, 2000
Hitz hegalariai

Zazpi urte dira Jabi Santa Cruz potaren Moko bilduma argitaratu zela. Tamala da ikustea liburu batzuk nola geratzen diren bide bazterrean, ahanzturan, desgaraian argitaratu zirelako (Durangoko zurrunbiloa askorentzat desordo izan daiteke) edo iruzkinik jaso ez dutelako (batzuetan gertatu ohi da liburu txarra iruzkinik gabe geratzea, txarra den aldetik inor ez delako ausartu hori kritikatzera; baina beste askotan kritikari apurrok ez gara iristen ez dena ezagutzera eta –are gutxiago– liburu guztiei iruzkina egitera).

Kontuak kontu, liburu hau noizbait ere iritsi da gure eskuetara eta bi deskubrimendu egin ditugu: batetik, txori eta hegaztien ezagule fin bat, eta bestetik, eta hori axola zaigu gehien, poeta are finago bat, hego bikoei arretaz begiratu eta haien hegada poema laburretan oso modu egokian jaso duena. Gure herriko txori eta hegazti asko eta asko jasotzen dira

orriotan, beren izen zientifiko eta guzti, baina bertsokera desberdinetan datozen poema hauek jostarinak dira, deskriptiboak baino gehiago, eta erudiziorako arriskua bazter utzirik, kontu handiz hautatutako lexikoaren bidez datozkigu:


«Zikoina zangoluzea/kanpandorrea zuria/
zurekin alaitzen dira
herrixka eta hiria.
Kanpandorretik zerura
zerutik kanpandorrera
buelta-bueltaka dabil
zikoina alegera.
Afrikatik bi etorri
Afrikara doaz lau
berriro etorri arte
penetan utziko nau».

Halako liburuetan gertatu ohi denez, hala ere, beharbada halako asmo pedagogiko batek itsusitzen du liburuaren ederra, bai hasierako sarrera bai amaierako ariketak. Kontuak kontu, eta kontraesana badirudi ere, eskolarako –kontrazalak 8 urtetik aurrerako irakurleei gomendatzen die irakurketa– oso liburu egokia da «literatura» edo «hizkuntza» eta «inguru» ikasgaiak bateratzeko, biekin gozatzeko.

Izango ahal dugu Jabi Santa Cruzen hurrengo libururik irakurtzeko parada, eta garaiz ekarriko ahal dugu lerrootara.

Laura Sagastume

10 +



LESTERREN LOGIKA
Harkaitz Cano
Elkar, Donostia, 2006

Lester mutiko serioa

Arazoi asko direla medio, Harkaitz Canoren idazle ezagunaren haur-errentzako liburu honek (eta beraz nire erreseina honek ere) antzekotasun handia du Unai Elorriagaren Matxin-saltoen belarriak izenekoarekin (ikus *Mugalari*, 2006-11-4).

Canok hamar urte betetzear dagoen Lester mutiko bitxiaren bizipenak aurkezten dizkigu, Lesterren beraren ahotik. Liburuko izenburuak iradokitzen duen legez, logikaren bidez iragazten du sentitzen duen eta bere begien bistatik pasatzen den guztia; hasieratik bertatik konturatzen gara ohikoa den baino azkarragoa dela mutikoa, daukan dislexia txiki xelebrea eta guztiarekin, eta liburuko pasadizo batzuk, aipatutako izaera bitxi horren ondorioz, oso barregarriak dira, literarioki oso ondo landuta egoteaz gain.

Egiturari erreparatuz gero, liburu oso autonomoak diren hogeita hamabi mikrokapituluz osaturik dago (kontuz, aurkibideko orrialdeak oker daude eta); Lesterren bizitzako flash modukoak dira, irakurle txikiak nekerik gabe banaka irakur ditzakeenak, batetik bestera ekintzaren garapen handirik ez dagoelako. Azkenean, puzzlea osa-

tutakoan, pisu handien hartzen duten istorioak Hiner atzerritar misteriotsuarena, Paola neskarena, pospolo fabrikarena eta aitonarena dira.

Kapitululu horietako batzuek, gainera, haur literaturak askotan falta duen transgresio ukitu osasungarriak dituzte. Aitonaren heriotza da horietako bat: senitartekoren baten heriotza gero eta sarriago lantzen den gaia izan arren, haurraren begirada eta arazoaren onarpena oso ondo eramanda daude. Hiner auzokide atzerritar mozkorrekin izandako harremana ere hor dago; bere buruaz beste egin nahi duen pertsonaia batekin ehundutako egoera bat ere bada; baina, batez ere, «Barrio Beltza» izeneko pasarte bereziki aipagarria da: «Barrio Beltzean ez dago belerik, baina emakume asko daude, ez denak beltzak, denak kalean. Oso zango luzean dituzte eta oso gona motzak» (65. or.). Neska horien ogibidea azaltzeko bidea ere oso orijinala iruditu zait (Olariagaren irudi aparta ahaztu gabe): «Kale-garbitzaileak dauden bezala, baztadek ohe-berotzaileak ere» (id.).

Azaldu dut Lester mutil azkarra dela, eta logika baliatzen duela bere inguruko mundua ulertzeko, baina ez da ahaztu behar bederatzirteko mutikoa besterik ez dela. Sinesgarria izan daiteke funtzio sinboliko aurreratu samarra izatea, baina horren pareko litzatekeen funtzio linguistikoa agertzea ez da hain sinesgarria. Adibide hau oso adierazgarria delakoan nago: etorkizuna asmatzen duen sorgin baten saioa ikusita, hauxe da Lesterren gogoeta: «Nik uste alfer-alferrik dela zer gertatuko den jakitea, ez baldin badakizu zehatz-mehatz noiz gertatuko den. Adibidez, sorginak esaten badu: maite duzun norbait hilko da (eta hori askotan esaten dute)... Zer aurreratu duzu? Beti dago maite duzun jendea, eta jende guztia hiltzen da. Zein da soluzioa? Erraza: maite duzun jendea ez maitatzea, eta horrela ez da hiltzen. Baina ez dakit funtzionatzen duen. Hinerrek esaten du ezetz. Ez duela merezi. Hobe dela jendea maitatu, jendea maitatzearen ordaina jendea

hiltzea izan arren» (82-83. or.). Berriro diot: nire iritziz, sinesgarria izan liteke bederatzirteko norbait pentsaera logiko horretara iristea, baina ez linguistikoki horrela artikulatzea. «Baina literatura da», esango dit norbaitek. Egia da, baina literaturak baditu bere legeak.

Esan bezala, Harkaitz Canoren liburu honek (eta beraz nire erreseina honek ere) antzekotasun handia du Unai Elorriagaren Matxinsaltoen belarriak izenekoarekin. Eta ordukoan bezala hemen ere, irudipena dut testuak asko irabaziko zuela ikuspuntu aldaketa batekin. Oso harira dator Genettek kontatzen duen pasadizo: «Esaten da, eta 1908ko hitzaurrean bere erara erdi-aitortzen du, hasiera batean "lehen pertsonan" idatzi nahi izan zuela Henry James-ek Maisiek zekiena [What Maisie Knew], Maisie bera narratzailea izanik; baina haur-estiloa eta hiztegi mugatua erabili beharrak asmoa bazterrarazi ziola eta kontakizuna desbokalizarazi, baina desfokalizatu gabe; izan ere, jakina denez, kontakizunak neskaren pertzepzio eta sentimenduei maisuki eutsi zien. Sinbolikoki gertakizun horretan data genezake Jamesen "hirugarren pertsonako" narrazio-bide fokalizatuaren erabateko nagusitasunaren dogma (bertute bihurtutako beharra?)».

Amaitzeko, «Xaguxar» bilduma hartzen ari den norabideari buruz, bi hitz. Irudipena dut helduen literaturako «izarrak» erakarri nahi dituela haur eta gazte literaturaren alorrera: Cano eta Elorriaga, Gabiria eta Izagirre... Hori dela eta, duela gutxi jaso dudana Behinola aldizkariko azken zenbakian Asun Agiriano bibliotekari eta Galtzagorriko lehenakariari hauxe irakurri diot: «Liburuaren industriari ondo etorriko litzaioke kalitate literarioa bereziki kontuan izatea eta ez, adibidez, idazlearen izen ospetsua» (22. or.). Bistan denez, bi alderdi horiek bateragarriak izan daitezkeelakoan nago.

Manu Lopez Gaseni



JO MUSIKA, JO!
Miquel Desclot
Itzultzailea: JUAN KRUIZ IGERABIDE
Ilustratzailea: FINA RIFA
Elkar, Donostia, 2004

Behin ere desafinatu gabe jo eta jo ari dira liburu honetako musika trenguztiak Bartzelonako Miquel Desclot idazlearen batutaren pentzutuan. Eta musikaz ari garen honetan, hitzak modu musikalean aletu ditu egileak eta, ezagun denez, erritmoak berebiziko garrantzia du poesia guztietan. Sokazkoak, haizezkoak, biolontzela bezalako instrumentu handiak, ertainak edo aho-gitarra bezain txikiak desfilatzen dute orrietan barrena kantari eta kontari, hiltun bilakatzen baitira beren buruaren aurkezpena poema jostari batez egiteko garaian. 57 dira guztira eta hitza hartzean beren jatorriez mintzo zaizkigu, beren nolokotasunez, beren izaerez, beren ezaugarriez, betiere jai giroan, umeretsu eta era jostagarrian. Orkestra sinfoniko berezi eta zoro honetan hotsa eta hitza sinfonia ederrean uztarturik datoz.

Jo musika! estraineko atalari, poema labor batez, orkestraren aldarriak ematen dio hasiera. Segituan, sokazkoak eta haizezkoak dira orrietan tartekatzen diren instrumentuak, hurrenkera zehatzik gabe. Jolasa poesia orotan badago ere, bigarren atala osatzen dutenetan artezago somatzen da jolaserako proposamen hori, 20 igarkizun ondu baititu egileak, gaiari behin ere ihes egiten gabe denak ala

denak ere musika instrumentu ezberdinen inguruan sortuak. Igarkizunon erantzunak amaiera aldean datoz, banan-banan, igarri ote ditugun konprobatzeko zain. Hirugarren atalean, Jo musika, jo, arren!, aurrekoen haritik instrumentu gahiago datoz, sokazkoak nagusitzen dira esparru honetan, baina bada bestelakorik ere, gaita eskoziarra, saxoa edo sintetizadorea, kasu. Plazako baladak izenburupean dator liburuaren

azkenengo atala eta, hasierakoaren atarian bezalaxe, berriro ere orkestraren aldarria da hastapenean eta herriko jaietako bazter-zokoak astintzen diharduten instrumentu andana batek egingo digu aurkezpena ondorenean, ahots propioaz hitz eta pitz. Fina Rifären ilustrazio sotil eta irudimentsuez horniturik dago liburua.

Més música, mestre! du izena ja-torrizko liburuak eta egileak berak orkestrari buruz aspalditxo egin zuen ipuin batean du onarri. 2002 urtean Madrilgo Kultura Ministerioaren sari nazionala jaso zuen liburu dibertigarri hau Juan Kruz Igerabide idazlearen eskutik etorri zaigu euskaratua gurera, instrumentuek dioskuena entzun, euren olgatu eta liburuan sortzen den jai giroaz euskaraz ere goza dezagun.

Xabier Olaso

KEA AIREAN BEZALA

Imanol Azkue

Ilustratzailea: EIDER EIBAR

Elkar, Donostia, 2006

Imanol Azkue idazle zumaiarraren lumatik eta Elkar argitaletxeko Xaguxar bildumaren eskutik heldu zitzaigun iragan urtean Zarauzko Udalak urtero eratu ohi duen «Xabier Lizardi» haurrentzako ipuin-leihaketaren 2005eko ipuin garailea: *Kea airean bezala*.


Harrera-etxe batean bizi den Lionel izeneko mutiko xaloaren ahotik jasoko ditu irakurleak kontakizun samurra- ren nondik-norakoak, bera izango da uneoro gidari nagusia eta bere bitartez ezagutuko ditu, besteak beste, hamabost urteko bere arreba Kris eta burutik gaixo dagoen Luis Mayo beren aita. Eta arian-arian, istorioan aurrera, Linonelek berak ezagutzera emango dizkigu, halaber, bere bizimodua ar- dazten duten lekune fisiko behinenak, bere aita ingresaturik dagoen ospitale psikiatrikoa eta berak eta bere arre- bak bizileku duten harrera-etxea, hain zuzen. Eta bere joan-etorrietan, adjektibo indartsuez eta esaldi labur trinkoez deskribatzen ditu idazleak biak ala biak, era egokian.

Lionelek berak lehenengo pertsona kontagai dituen eguneroko bizipen, gertakari eta pasadizo gazi-gozoek, bestalde, bere barne-mundura eragoz- penik gabe sartzen utziko digute, bere ametsak, irrikak eta gabeziak gertutik ezagutzen, ageri-agerian gelditzen baitira kontakizunak aurrera egin

ahala. Eta hauek guztiak ere bilakaera xumean ari dira, garapenean, egunak joan, egunak etorri, Lionel mutikoa koxkortzen den heinean. Ahots narrati- boa lehenengo pertsona mintzo izateak goxatu egiten du kontakizuna, errealagoa bilakatzen du, sinesga- rriagoa, pertsona- lagoa.

Gabezia hitza aipatu dut arestian, baina zein ote Lionelengan ezagun diren gabeziak? Ez da, ez, gabezia materiala, beste ume batzuekin bizi den harrera-etxean ez baitu halakoren faltarik. Honax horren adierazle den lagintxo bat: «Ez gara gaizki bizi harrera-etxean Kris eta biok, gainerako umeekin. Ez zaigu ezer falta. Denetarik daukagu eta ondo zaintzen gaituzte». (18. orrialdea).

Gabezia afektiboa da, zalantzarik gabe, Lionelengan gailentzen dena, gurasoen babes falta, aita-amaren gertutasun, berotasun eta maitasu- naren premia. Amarik izan ez eta aita burutik nahasia dagoelako aldamenen barik ospitalean izateak hazten ari den bederatzi urteko mutiko eta hamabost urteko neska nerabe batengan, modu ezberdinetan bada ere, bete-betean eragiten dute. Lionel, inoiz ezagutu ez duen amaz ari delarik, honelaxe mintzo zaigu bihotzaren muintetik, irakurlearen sentimentuetan atximur eginez: Askotan, lotan, beti amets berbera egiten dut. Beso batzuek, za-



balik, deitu egiten didate, besarkatu egiten naute, eta ezpain gozo batuzek musu ematen didate [...] Baina ametsetik iratzarrita kea airean bezala desegiten da. Hara hemen amaren maitasu- naren premiaren aldarri esanguratsua, Lionelen ahotan jarria!

Bada, bestalde, ipuinean sarritxo ageri eta nabar- men gelditzen den beste

ezaguarri bat: bidaiatzeko grina. Eta bidaiatzek, Lionelen kasuan, badu bere egoerari esturik loturiko esanahirik, bi- daiatzea urrutiratzea baita, alde egitea, bere bizimoduaren errealitateari itzuri egitea azken buruan, irudimenaz besterik ez bada ere.

Liburuaren gaiaren gordina esku finez eta samurtasunez leundurik agertzen jakin du idazleak eta, tarteka ere, umore zipriztinez zelaitu ditu gaiaren aldapa latzak. Nekerik gabe eta takarradan irakurtzeko moduko liburua dugu Imanol Azkueren hau, laburra, ulerterraza eta mamitsua, aldi berean. Amaitze aldera, ezin aipatu gabe utzi liburuaren azala eta orri-ba- rrenak hornitzen dituzten Eider Eibar marrazkilariaren irudiak.

Hauexek bada, Kea airean bezala libu- ruaren hari-mutur batzuk, zertzelada soil batzuk, orrietara gerturatzeko gonbit egin nahi dutenak.

Xabier Olaso

ANTZETZEN... TEKETEN TEN!
NI EZ NAIZ TXOTXOLO
Aizpea Goenaga
Erein, Donostia, 2006

Antzezlaria antzerki-idazle

Haur zein helduentzako antzerki-lanen bat hizpide duten erreseina gehienek hasierako lelo bera izan ohi dute: kuantitatiboki hutsaren hurrengoa den generoa dela, idazten diren testu askok ez dutela gero taularatzeko aukerarik, testu dramatikoan idazlearen irizpideak ez datozela bat antzerki-zuzendari eta arduradunenekin... Hori guztia egia da, eta, haur-eta gazte-literaturaren alorrera mugatuz, esan beharko litzateke apenas irakurtzen direla, eta ikastetxeetan askoz nekezagoa egiten zaiela antzerki-testu bat lantzea beste edozein testu baino (hemen ere, kidedasun aldetik jarri ohi den beste salbuespena poesia izaten da).

Aurreko guztia dela eta, oso txalotzekoa iruditzen zait antzerki-testuetz soilik osatutako bilduma bat ateratzeko Erein argitaletxeak izan duen ausardia, Antzoki Txikia, bi adin-tarte bereiztuz (7-10 eta 10-12 urte bitartekoentzat). Orain arte bilduman parte hartu duten hiru egileak itzal handi samarrekoak dira, eta gaurkoan horietako bati emango diot arreta: Aizpea Goenaga aktore, zuzendari eta idazle ezagunari.

Ume korrangoentzako azpi-bilduman argitaratu zuen antzerki-lana, Antzetzen... teketen ten!, berrargitalpen bat da: lehenago, Erein argitaletxeko «Igela» bilduman argitaratu zen, 1999an. Liburuan lau antzezlan proposatzen dira, bat urteko urtaro bakoitzeko. Aurretik, antzezpenak egiteko gomendio interesgarri batzuk eskaintzen dira, eskoletan-eta erabili ahal izateko. Antzezlanak laburrak dira, eta testu-markak dituzte adin desberdinetako umeek zailtasun handiagoz ala txikiagoz taularatu ahal izateko. Lehena ohiturazkoa da, eta alaba ezkondu nahi duen familia batez ari da; bigarrenak euskal mitologiako



pertsoniak jartzen ditu jokoan, gizaki bati laguntza eman nahian; hirugarrena, udazkenari dagokiona, eskola-girokoa da, ohiturazkoa orobat; eta laugarrena Olentzerori buruzkoa da.

Gaien laburpenean ikusi ahal izan den legez, aurreko hamarkadako (eta are lehenagoko) haur-antzerkiak ez du lortu gai tradizional eta ohiturazkoetatik aldentzea: orduko obra esanguratsuenek ere euskal mitologiari begiraten zioten temati, era batera edo bestera. Guztiarekin ere, Goenagaren eskua trebea da elkarrizketa eta egokieren garapenak gidatzen, eta testuak arintasunez irakurtzen dira.

7-10 urte bitarteko azpisailean, berriz, Ni ez naiz txotxolo izeneko lana argitaratu du Goenagak. Bete ezineko gogoren bat duten hiru haur dira protagonistak: Martinek zakur bat izan nahi luke, baina amak ez dio uzten; rap-dantzaria ere izan nahi luke, baina koadrilako «lagunek» barre egiten diote. Norak futbol-talde batean jokatzeko du amets, baina neska izanik zailtasun handiak ditu; aitak arreta pixka bat ematea ere nahi luke, baina sakelakotik jende garrantzitsuarekin mintzatzen da etengabe. Alik, azkenik, play station bat izan nahi luke, bere mundu berriko ume guztiek bezala;

gainera, ume «normala» ere izatea gustatuko litzaioke.

Azkenean, arazoak guztiz konponzen ez badira ere, nola edo hala ume bakoitzak bere bizitza bideratzea lortzen du: Martinek zakurra ez, baina anaia jaioberri bat izango du, eta rap-a dantzatzera ausartuko da ikasturte bukaerako jaialdian; Norak bakarkako futbolari gisa jarraitu beharko du, baina Martinen maitasuna aurkituko du; eta Ali desberdina izatearen abantailez ohartuko da.

Lana hamar agerraldi laburretan antolatuta dago, eta bertan pertsonaien istorioak gurutzatu egiten ditu Aizpea Goenagak trebetasun handiz, umorea, musika eta kantua lagun.

Bigarren antzerki-lan hau guztiz bat dator haur-eta gazte-literaturako korrante berriekin: umeen bizimodua idilikoa ez delako premisatik abiatuta, egun-egunekoak diren egoerak aurkezten ditu, eta finean eskaintzen dituen irtenbideek, garai bateko ohiko amaiera zoriontsuetatik urrun, ara zoak onartuz bizitzen irakasten dute.

Haur eta gazteentzako antzerkiak didaktikotasunerako joera handia izanik ere, Goenagaren lan hauek oso maila onekoak dira, eta testuok argitaratu baino lehen antzezpenaren frogara eta proba pasatua izatearen abantaila eta bermea dute. Irakurlearen eskuetara iritsi eta berehala formatu txikiko antzezpenak egiten hasteko benetako gonbitea.

Manu Lopez Gaseni

ILARGIA EZPAINETAN
 Juan Kruz Igerabide
 Ilustrazioak: Luis Emaldi
 Erein, Donostia, 2006

Zirrara estetiko bera

Hamabost urte igaro dira Juan Kruz Igerabideren *Begininiaren* poemak lehenengoz argitaratu zenetik, gutxitan bezalako zirrara estetikoak sentiarazi zigunetik. Poemas para la pupila izenburuarekin argitaratu zen, gero, gaztelaniaz, eta egilearen hitzatzearekin agertu zen bigarren edizioa, 1999an:

«Liburua nik uste baino jende gehiagok bereganatu du, eta bozkarioz bete nau horrek, jakina. Bat eta beste ibili dira, eskoletan eta, poema horiekin jolasean, antzeko beste batzuk egiten, ilustrazio berriak asmatzen».

Bitxia da: poemekin jolastu dio poetak, eta gaineratzen: «Guztia erdi jolasean hasi zen», eta bitxia da hori izatea halako poema sakonen jatorria —eta jarraipena. Baina jolasek bezala, poema hauek ere nola-halako araudia behar, eta hori haikuan dago. Poema hauen iturburuan egileak kantu zaharrak, poema herrikoiak eta ipuinak aipatzen ditu, eta, esan bezala, batik bat haikuak edo poema japoniar ezin laburragoak:

«Bashoren haikuak. Iturria irekia zegoen; ura xirripan zetorren, eta ni, edan eta edan, gustura. Bada, Zizurkilgo haurrekin poesia lantzeko, haikuetara ere jo nuen: itzultzen hasi nintzen, eta haien antzera beste batzuk moldatzen; oroitzen ditut neguko goiz bakarti haiek, nire gelako leihotik mendira begira, eta haikuak sortzen».

Litekeena da norbaitek aurreko sarerari luze iriztea, izan ere gaurkoan *Ilargia ezpainenetan* dugu hizpide, baina *Igerabideren* poemekin beste bitxikeria bat ere gertatzen da: badirudi beti liburu bera irakurtzen ari garela, poema berriak hari beretik etorriko balitzaizkigu bezala, eta berdin diola aurreko poema liburuak irakurtzea, edo Egun osorako poemak, edo Botoi bat bezala. Hala ere argi dago batasun han-

10 +



diagoa dagoela *Begininiaren* poemak eta *Ilargia ezpainenetan* liburuaren artean. Forma aldetik antz-antzekoak dira biak, biak ere Luis Emaldiren marrazki minimoekin datozkigu, eta bilduma berean gainera, hau da, *Erein-eko Auskalo Bumeran-en*. Edukietan ere badute antzekotasunik: *ilargia* dugu bietan ardatz, eta *ilargiaren kolorekoa* dugu katilu esnea:

«Nire bizitza katilu esnetan koilaratxoa jira-biraka.
 Zoriontasun ikusezinaren azukrea nahasten da oroitzapen zurian.
 Amaren aurpegia agertu ez agertu azpian, aitaren bekokia eta zurrumbiloan, anai-arrebak...
 Eta nik, dena edan behar eta mingainaz garbitu ezpainak».

Bai, liburu bera irakurtzen ari gara, baina beharbada honako honi aitortpen kutsu handiagoa dario, intimistagoa da, eta poetak bere familiaren albiste ematen digu, haien gabeziak utzitako sentimenduak bereziki. Urrats bat aurrerago emanda, maitasun poemak ia oharkabean kukuka dabilzkigu:

«Izan nuen andregai bat berak jakin gabe».

Eta urratsa aipatu dugula, pausoa —edo erabakia— dugu errepikatzen den beste irudi bat, erabaki beharrearekin, norabidearekin eta bakardadearekin lotua:

«Alde batera utzi nuen neska hura...
 begiratu ez niolako».

Horrexegatik, liburuaren kontrazelean 10 urtetik aurrera dioen arren, oraingo hau agian gazte koxkortua-goentzat izan daiteke egokiagoa. Zentzu horretan, badago beste ñabardura bat akaso bi liburuak desberdintzera datorrena: lehen *begininiak* zirenak betseinak dira orain... Noizbait, nonbait entzun dugu gaztetxoentzat hezkuntza estetikoaren aldeko aldarrikapena, eta funtsean hori dakarkigu gogora liburuak:

«Zientzia, goitik behera ziztu bizian datorren/eskailera automatikoa:
 eta nik gorantz igo behar».

Hamabost urte igaro dira, liburuak desberdinak dira, baina zirrara estetiko berdintsua.

Laura Sagastume

HARPAJOLEA

Juan Martin Elexpuru
 Ilustratzailea: IVAN MATA
 Ibaizabal, Bilbo, 2006

Istorio bizi-bizia

Nikanor Iztueta harpajolearen plazan irudi bat jartzea erabaki dute. Zuhaitzak moztu eta plaza erdian Txiliote artistaren irudia jarriko dute. Jakina, asmo hori ez da hain erraz eta era sinplean betetzen. Juan Martin Elexpuru ipuin honetan kontatzen digun bezala, herri honetan ez baikara isilik egoten ados ez gaudenean:

«Udal langileari gutxi falta zaio bigarren zuhaitza ebakitzeko, magnolio lodi bikain bat, gazte talde bat heldu denean. Bilduta ekarri duten oihala zabaldu dute langilearen muturraren aurrean. Zuhaitzak bizirik jartzen du eta oihuka hasi dira.» (9. or.);

baina, eta hau ere ipuinean zehar islatzen den kontua da, euskaldunok biziki estimatzen dugu umorea. Horrela, Harpajolea ipuin hau abentura, misterio eta umorezko istorioa dugu. Abentura eta misterioa irudiaren desagertzearen ondotik etorriko zaizkigu, eta umorea... ipuinean zehar mantentzen den elementua dugu. Hasiaren protagonista nagusiak, Urrufiño eta Joxepa, aurkeztean, ondoren irudiaren desagertzearen inguruan, eta gero, fruta saltzailea eta zapata konpontzailea ikertzaile hasten direnean, baina, umore puntu gorena ipuinaren amaieran dago. Izan ere, ipuin honek badu gure herriko errealitateak, gure inguruko handiuste nahia edo faltsukeriatik, eta baita umore, txiste eta kontakizun barregarrietatik (ez dugu ahaztu behar Elexpuru horrelako istorioetan duen esperientzia, Fernando Plaentziarra hura, esaterako, moldatu zuen haurrentzat duela urte batzuk; edo, besterik gabe, izenburuan bertan aurki dezakegun hitz jokoak, hots, harpa jo aditzak euskaraz dituen bi aldaeretan oinarrituriko hitz jokoak).

Nikanor Iztueta plazan irudia jarri nahi dute eta, hainbat protestaren ondoren, irudia inaguratu behar



dutenean, Ahaldun Nagusiak, Alkateak eta Txiliote artistak irudia estaltzen duen oihala kentzen dutenean irudia desagertu dela ikusiko dute jendearen txalo, txistu eta barreen artean:

«Gero estalki beltza kendu du, eta... Isildu egin dira bat-batean txalo eta txistu guztiak.

Ez dago irudirik!!! Haren lekuan zuhaitz adar batzuk ageri dira!!!

—Amabirjina Dorletakoa!—oihu egin du Joxepak—. Harrapatu egin dute!

Aho bete hortzekin gelditu dira agintariak eta Txiliote jauna. Izadizaleak txaloka eta barrezka hasi dira. Poliziaren sirena-hotsa entzun denean, pankata bertan utzi eta ospa egin dute.» (20-22. or.)

Gertakari horren ondoren Urrufiño eta Joxepa irudiaren bila hasiko dira, eta hortik aurrera ipuinak esparru pertsonalagora eramango gaitu, amaiera berezia eta lortua izanik.

Elexpuru oso elementu gutxi erabili ditu gertakariak deskribatzerakoan, ia-ia antzezko testua dela esan genezake, deskribapen gutxi, zehatzak, istorioaren nondik norakoak ezagutzeko eta aurrera egiteko behar direnak, besterik ez. Eta horrekin batera elkarriketen garrantzia, bi elementu horien erabilerak —deskribapen zehatzek eta

elkarrizketek— lortzen baitute ipuinaren tonua eta erritmoa mantentzea:

«—Gainera zure etorkizuna ere jokoan dago —jarraitu du Joxepak—. Jakingo duzu ba gure Karlos zuen Susanarekin gustatuta dagoela...

—Zuen Karlos gure Susana-rekin...?

Urrufiñoren aurpegi irribarretsua ilundu egin da bat-batean. Pentsamenduetan murgildu da une batez. Gero, mailua hartu eta takoia josten jarraitu du.» (29. or.)

Juan Martin Elexpuru idazlan hau atsegin handiz eta di-da batean irakurtzen den ipuina dugu. Gertakariak oso erritmo bizian azaltzen dira, eta ekintza da nagusi narrazioan. Horrek guztiak, jakina, testu irakurterraza eta arina bilakatzen du, une atsegina igarotzeko aproposa.

Aspaldi erakutsi zigun idazle beragararrak istorioak narratzen duen trebetasuna, eta oraingoan ere horixe bera egin du (eta Ivan Mataren irudiek narrazioa, bai tonua, bai istorioa bera ere ederki islatuz kontakizunaren harria hobeto jarraitzen laguntzen dute). Istorioko protagonistak, baina, nahiko planoak dira; ez da aldaketa handirik ikusten haiengan (Karlos, Joxeparen semea, esaterako, pertsonaia garrantzitsua dugu ipuinean, baina behin bakarrik azaltzen da adarra dariola Susanari so dagoela esateko), ipuinaren bizitasunak, erritmo biziak, gertakarien garrantziak hala eskatuta.

Atxagak elkarrizketaren garrantzia errebindikatzen zuen gazte literaturaz aritzean eta Mariasun Landak umore puntua. Elexpuru ipuin honetan bi horiek eta hizkuntzaren gardentasuna (zentu guztietan) ikus ditzakegu, eta baita gure herriko errealitatea (gazteen izaera errebindikatzailea, gertakarien inguruko azterketa politiko-poliziala,...) islatzeko era ez dramatikoak, umoretsua ere. Italo Calvinok zioen bezala literatura gizartearen auto-kontzientziarako tresna baitugu, eta Elexpuru obra honek, umoretik eta arintasunetik, egungo gure gizartea hobeto ezagutzen laguntzen baitugu.

Xabier Etxaniz Erle

H GABE

Sustrai Colina

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Alfaguara-Zubia, Etxebarri, 2006

Komikien ildotik


Pintada bat agertu da ikastetxean beti oilarturik eta nagusikerian ibiltzen den Keparen kontra. Manu, Xabi eta Joxemari jo dituzte errudun, hain zuzen ere gelako txepelenak eta oilobustienak. Hiru lagun, nesken kuleroen koloreari eta uso kaken zenbaketan espezializatuak, autoestimu eskasekoak hirurak ere.

Argumentuak, batez ere ekintzen azkartasuna eta elkarrizketen nagusitasuna medio, erraz harrapatzen du irakurlea, eta ez da ahaztu behar 12 urtetik aurreragoko sail batean hori nahikoa meritu dela. Hala ere, in crescendo doan gaia ahuldu egiten da erdialdetik aurrera: gazteen piper eguna, zezen baten agerpen umoretsu baina prebisibleegi eta erabiliegiaekin, edota itsasoan egindako bainualdi gutxi aprobe txatuarekin –hiru mutil eta neska bat txalupa batean, musu bat, eta sentsualitate eskasa irakurle honen gusturako–, esan bezala, erdialdetik aurrerakoa indargabetu antzean geratzen da, eta irakurlearen jakinmina urritua.

Enkargu bati erantzunez bada ere, adin tarte zaila aukeratu du Colinak, cola-caoa edari alkoholdukin nahasten hasten den nerabezaro konplexua hain zuzen ere. Beren burua ondo kokatu ezinik dabiltzan hiru mutil baliatu ditu istorioa biribiltzeko, baina irudipena daukat zuku gehiago atera zezakeela, eta akaso azkartasunaren mesedetan galdu duela sakontasuna. Agertzen den dibortzioaren gaiak edo, bereziki, lehen musuen inguruko auziak, askoz ere aukera gehiago eman zezaketen.

Esanak esan, Sustrai Colinak batez ere estiloan asmatu du: pertsonaiak ondo definiturik daude eta nork bere bere estiloa du, nork bere hizkera, konparazio eta irudi indartsu eta ugari dakarkigu, eta ipuinean zehar ageri

12 +



diren errepikapenek eta moldaketek halako batasuna ematen diote lanari:

«Hortzetako aparatu bat bezala sentitzen ziren. Traban, deseroso, zikin, zegokien tokia aurkitu ezinik. Hortzetako aparatuen distira balute, sikiera... Baina ez».

Sustrai Colinaren lehen literatur lana omen da honakoa, eta esan beharra dago estraineko horretan gutxitan ikusi izan dugula hemen bezalako emaitza txukunik. Egilea bertolaritzaren mundutik etorri izanak ere izango zuen eraginik: elkarrizketa bizi-biziak dira –batzuetan distiratsuegiak ere bai–, hitz joko asko ageri da, erdara errep-arorik gabe sartua dago –bitxiak dira «labadora», «sekadora» edo antzeko hitzen erabilera, euskarazkoak gaur egun eta, are gehiago gazteen artean, ondo zabalduak direnean; baina bada adibide esanguratsuagorik: «Martxa funebrea tarareatzea baino ez zitzaion falta»–; zentzu honetan beharbada beste bitxikeria bat ere nabarmendu genezake: idazlea lapurtarra izan arren, argi dago hego aldeko euskararen aldeko apustu garbia egin duela, hain zuzen ere nork eta berak euskalkiak

hurbiltzeko lan kontziente eta hoberik egin zezakeenean. Guztiarekin eta, hitz batez, begirada propioa dakarkigu egi-leak, ikuskera pertsonala, hurbila eta gaztea –egilea bera bezala–, freskoa, eta honekin guztiarekin lorpen ederra lortu du: komunikazioa, bai gaiaren bai hizkeraren hurbiltasunagatik. Bertsolaritza aipatu dugun honetan, ez dugu ahaztu behar Zubia argialetxeak beste bertsolari bat plazaratu zuela orain dela urte batzuk, Igor Elortza, eta hark ere asmatu egin zuela bere lehen lana izandako Margolana harekin.

Amaitze aldera, komikien aire bat dario H gabe liburuari, bizia da, topikoetan geratzeko arriskuaren ertzean dabilena, eta irudipen hori Jokin Mitxelenaen marrazkiek are-agotua dator. Azala ederra da, ondo jasotzen du istorioaren gakoa, baina barneko ilustrazioek komikien biñeten antza dute, eta beharbada txikiegi geratzen dira liburuan. Denok dakigunez, ez da ohikoa gazte bildumetan ilustrazioak agertzea, baina iruditzen zait, erabiltzekotan, presentzia handiagoarekin erabil zitezkeela, hain gutxi izanik, eta hain txikiak...

Laburbilduz, idazle baten lehen lana izateko aski obra txukuna iruditu zait, seguruenik irakurle gaztetxoak erraz harrapatuko duena. Orain bigarrenaren esperoan geratzen gara, agian sakontasun gehixeagoarekin.

Laura Sagastume

NUMANTZIA, ILUNABARREKO
IZARRA.

Angel Benito Gastañaga
Itzultzailea: MIEL ELUSTONDO
Saure, Legutiano, 2006

Urguilu eta erresistentzia istorioak

Angel Benito Gastañaga komikigileak zeltiberiarren erromatarren kontra altxatu eta gogor aritu ziren garaiko istorioa kontatzen digu komiki liburu honetan. «Urguilu eta erresistentzia istorioak» dira egileak berak dioen bezala, eta liburuko orrietan barrena Noive gaztearen istorioa eta bere herriarena ezagutzeko aukera izango dugu. Segedako Karos buruzagiaren alabaren istorioa, baina, oso gainetik ikusiko dugu, liburuko orrietan barrena Numantzia eta numantziarren historiak baitu garrantzi handiena.

«Nazio modernoek literatura erabili dute bere legitimitatea sortzeko» diosku Jon Kortazarrek Even-Zoharren ideien ildotik, eta hain zuzen, ideia horri beste bat gehitu behar diogu: botereak literatura erabili izan duela bere ideiak inposatzeko. Frankismoan, gai patriotikoak bultzatzeko, duela aste batzuk Mugalari honetan bertan Jimu Iturraldek komentatzen zuen Viriatoarena bezalako istorioekin batera Numantziakoa kontatu ohi zen. Frankismoak heroi gisa aurkitzen zituen zeltiberiar haiek... Espainiako heroi gisa!.

Urteak joan dira eta orain, zama ideologiko hori bazterturik, gertakariak izan ziren bezala agertzen zaizkigu liburu honetan.

Narrazioaren hasiera ka. 153. urtean kokatzen da, Karos buruzagiak bere herria utzi eta Numantziaren babesaren lortu zuten garaian; Noive, haren alaba, izango da liburuko protagonista, Numantzia herriarekin batera. Erromatarren nahiak eta traizioak zeltiberiarren erresistentzia garaiekin egiten dute aurre, harik eta ka. 134. urtean Erromako senatuak Eshpion Emiliano jenerala bidali arte.

12 +



Honek Numantzia inguratu eta hamar hilabeteko setioaren ondoren hiriaren erraustak eta biztanle gehienak hilda –askok bere buruaz beste egindabesterik ez zuen jaso.

Historia eta istorioa bat eginda agertzen dira liburu honetan, bai eta arlo grafikoa eta historikoa; Numantziako Plan Arkeologikoaren zuzendariak adierazi bezala, «istorioa girotzeko eta birsortzeko, berriz, egileak kontuan izan du Numantziari dagokion informazio arkeologikoa». Eta hau guztia liburua ikusten duenak argi eta garbi nabari dezake. Alegia, alde aurretiko lanketa handia egin dela gertakarien inguruko informazioa jasotzen.

Numantzia, Ilunabarreko izarra informazio iturri erabil zitekeen (irudi errealistek horretan lagun dezakete), baina horretara mugatuz gero pobretu egingo genuke liburu honen balioa. Izan ere abenturazko istorioa ere bada liburu hau, baina baita amodiozkoa edo gizakion jokabide maltzurri buruzkoa ere.

Liburugileak, arestian aipaturiko lanketa horiez gain, ederki konbinatu ditu koloreak (orrialde berean koloretako eszenak eta zuri-beltzekoak) eta irudi edo eszenen banaketa; horrela banaketa linealik gabe, zenbait irudi

sartu izan ditu orri berean, batzuetan bakar batzuk, beste batzuetan goitik beherako tiretan... baina orrietan mugikortasuna bilatuz eta irakurlea irakurtzen jarraitzera animatuz beti. Eta irakurketaz ari garelarik, ezin utzi aipatu gabe erdarazko testua izanik primeran korritzen duela euskaraz Miel Elustondok eginiko lanari esker.

Eskertzekoa da, honegatik guztiagatik, Saure argitaletxe txikiak eginiko lana kalitatezko komiki liburuak euskaraz eskaintzearen. Euskal Herrian puntako ilustratzaileak izanda ere, gutxi dira gure hizkuntzan argitaratzen diren komiki liburuak, eta hauetako gehienak, hau bezala, itzuliak.

Manguelek, Irakurketaren historia bat liburuaren egileak, zioen bezala irakurketak pentsatzen laguntzen du eta boterearentzat ez dago pentsatzen duen herria baino arrisku handiagorik. Euskal irakurleak Noiveren istorioarekin goza ahal duen bezala, gozatu ahalko du egun batean Amaiur edo karlistadetako istorioekin!

Xabier Etxaniz Erle



ERAGON
Christopher Paolini
Itzultzailea: Fernando Morillo
Elkar, Donostia, 2006

Dragoi-zaldizkoen itzulera

Marketing anglosaxoirik samurren lagunduta dator Eragon, euskal apaletara heldu den azken best-seller-a. Oraindik gogoan dugula Rowling andrearen irudia tabernazulo batean ume jaioberria besartean *Harry Potter*-en lehen orrialdeak idazten, Christopher Paolini gaztea aurkezten digute orain, elurututako mendiez inguratutako etxalde batean gurasoek hezia, hamabost urterekin dragoiei buruzko istorio bat idazten hasi zela... Urteak joan dira eta, espero zitekeen bezala, Eragon liburuak mundu osoan saldutako aleak milioika kontatzen dira. Gurean, berriz, abentura haiekin txunditutako idazle batek euskaldungoari ezagutarazi nahian euskaratutako liburu gisa aurkeztu da amerikar gaztearen obra.

Eragon hamasei urteko baserritar bat da, halaber jakin duena Alagaësia bere herria askatzeko jaioa dela. Hasiera batean ez du bere patua onartu nahi, baina hori ere heroien ezaugarria da, dragoi-zaldizkoen leinukoa dela adierazten dion eskuko marka bezala. Aliatuen bila eramango

duen bide luze eta arriskuz beteari ekingo dio, jadanik Saphira dragoi emearen eta Brom ipuin kontalari eta inizatzailearen laguntzarekin, eta hala lortuko du gaizkia haragiztatu duten indarrak garaitzea, magia lagun. Bistan denez, *Harry Potter*-en ezagun genituen ezaugarri askoren jabe da Eragon; eta bidean topatzen dituen izaki mota desberdinek ere (elfoak, urgaloak, nanoak, vardenoak...) Eratzunen jauna eta haren ondorioz sortutako «fantasy» generoko beste ekoizpen asko dakarzkigute gogora. Irakurle gazteen aurrean zabaltzen den fantasiako mundua oso identifikagarria gertatzen zaie, gehiago azken boladako filmengatik jatorrizko testuengatik baino.

Aipatutako erreparatu guztiekin ere, ustekabez jositako ekintza oso ondo eramanda dago, protagonistaren psikologiaren garapena ere bai eta, azken batean, liburua oso ondo irakurtzen da, irakurle gazteei zuzenduta dagoela kontuan izanda. Fernando Morilloren itzulpena ere aipatzekoa da, lexiko aberatsaz eta ondo eramandako sintaxiaz aldatu duelako testua.

Manu Lopez Gaseni



CIELO ABAJO
Fernando Marias
Anaya, Madrid, 2005

Literatura eta emozioa

Hiru Constanzen bitartez kontatu digu Fernando Marias idazle bilbotarrak Cielo abajo historia hunkigarria; aristokraziatik etorri eta errepublikazale egin zen emakume xarmanta, umezurztegi batean hazi eta pisuak garbitzen amaitu zuen haren alaba eta, azkenik, abionetak pilotatzen dabilen oraingo Constanza. Hiru emakume eta hainbat gizon, senar —edo amorante—, gerraren erokeriak ia elkar hiltzera behartu dituena.

Amodioa, hortaz, eta gerra, eta amodioaren porrota, eta adiskidetasuna, eta gerra, eta adiskidetasunaren porrota, eta ardatz bat: hegaldiekiko pasioa. Osagai hauekin, idazkera garden eta landu baten bidez, egitura zatikatua tarteko —ingenieritza lan bikaina—, egileak nobela gogor, gordin eta, era berean, gogoangarri bat eraiki du. Aspaldian sentitu gabeak ginen halako bihotz zimikorik.

Anaya argialetxearen II deialdiko saria jaso zuen lan honek, eta Espainiako sari nazionala gero, eta ezin uka bigarren hau jaso izanak eraman gaituela liburua eskuratzera eta saria, orain, irakurlearena dela. Ausar zaitze hegan egitera, zeruan behera.

Laura Sagastume



MOLLY MOON ETA HIPNOTISMOKO LIBURU MIRAGARRIA

Georgia Byng
Itzultzailea: JESUS MARI LASA
Erein, Donostia, 2006

«... Eta esnatzen zarenean, ez duzu ezer gogoratuko.»

Harry Potter-en ondotik Erresuma Batutik iritsi zaigun best-seller berria da Molly Moon; Rowling-en obra arrakastatsua bezala, emanaldi ugaritan emana eta luzera nabarmeneko.

Molly Moon umezurtz-etxe batean bizi den neska herabe, berritsu, argal eta itsusi samarra da. Umezurtzegian oso gaizki tratatzen dute denek: zuzendari zurrut zalea, bereziki, anker-tasan eredia da, baina gainontzeko umeek Mollyrekin erakutsitako jokabidea ere benetan maltzurra da. Maite duen bakarra Rocky izeneko mutiko bat da, baina hura laster hartuko zuen semetzako amerikar familia batek, eta Molly bakar-bakarrrik geratu zen munduko gaizkiaren aurrean. Hala-beharrez, hipnotismoko liburu zahar bat aurkitu zuen liburutegian, eta hari esker inguruko guztiak haren menpe jartzen ikasi. Botere ikasi berri hura baliatuz, lehiaketa bateko dirua eskuratu zuen eta Ameriketara abiatu zen bere lagun minaren atzetik; ez, ordea, asmo makurrez liburuaren

bila zebilen Nockman irakaslearen begiradatik oso urrun. New Yorkera iritsita, Rocky aurkituko du eta ospea eskuratuko Broadway-n egindako ikuskizun bati esker, eta handik aurrera aberaskumearen bizimoduan murgilduko zen buru-belarri. Noizbait itzuli ziren Hardwick umezurtzegira, ordurako txukun eta onbideratua, eta han, liburutegira bueltatu zen batean, jakingo du liburuzainari esker gertatu zitzaiola hura guztia, haren birraitonak idatzitako liburuak baitzen hipnotismoari buruzko hura.

Harry Potterrekiko konparazioa saihestezina dirudenez gero, saialdia egingo dut: errealismoa (eskola-barnetegia / Oliver Twist antzeko umezurtz-bizimodua) eta fantasia (magia / hipnotismoa) nahastearen ondorioz sortutako liburuak dira biak, eta bietako protagonistak aurrera egitea arrakastaz lortu duten umezurtzak dira. Bakoitzaren helburuetan dago, ordea, desberdintasun nagusia: Potterren helburua mundua menperatu nahi duen magia beltzari aurre egitea den bitartean, Moonena «aberatsa, ospetsua eta polita» (115. or.) izatea da. Bide horretatik, Mollyk hipnosiaren bidez egiten duen guztia etekina edo abantaila ateratzeko egiten du, etengabe presente dagoen publizitatearen eraginaren pean.

Kontamoldeari dagokionez, gertakarien kontaktetara mugatzen da, askotan umore (eskatologikoegiaren) zipriztinez. Pertsonaien psikologian «sakondu» nahi den guztietan, ordea, azalpen topikoen bidez baino ez da azaltzen bakoitzaren jokabidea.

Laburbilduz, moda jakin batzuen arrimura sortu den eta arrakasta lortuko duen kontsumo azkarreko liburuak da.

Manu Lopez Gaseni



URTEBETE ITSASARGIAN

Miren Agur Meabe
Elkar, Donostia, 2006

Negar egiteko garaian

Zohar Shavit kritikoa aipatu izan du literatura sistema baten erdian dauden korrante eta gaiak bazterreko produkzioa ere iritsi ohi dela. Gure gizarte honetan argi eta garbi dago Haur eta Gazte Literatura (HGL) bazterrekoa dela, periferiakoa (nahiz eta batzuetan erdigunetik nahiko gertu egon, euskal literaturan gertatu izan den bezala garai batzuetan), eta erdian dagoena, aldiz, helduen narratiba da; baina korronteak, gaiak, estiloak... hizkuntza bateko literaturatik beste batera igarotzen dira gero eta samurrago gure mundu honetan. Eta euskaraz, baina baita gure inguruko literaturetan, gerraren gaiak helduen literaturan lekua irabazi duen bezala, orain badirudi HGLra iristen hasi dela. Ramon Saizarbitoriaren edo Javier Cercasen bezalako enbren ondoren 36ko gerra heldu da haurrentzako literaturara.

Urtebete itsasargian du izena Miren Agur Meabek idatzitako nobela bizi, eder eta hunkigarri honek, eta hamahiru urteko mutil baten istorioa kontatzen digu; hamahiru urteko mutil

batek urtebete horretako historia kontatzen digu, hobe esanda. Nobelak fikzioa eta errealtatea nahasten du, Jon Iturri gaztearen istorioan Lauaxeta eta Ariztimuñoren heriotzen berri dugu, baina baita Gernikako bonbardaketarena, Nabarra eta Canarias itsasontzien arteko borrokarena, Santoñan jazotakoarena... hots, istorio barruko historia asko ezagutzeko parada ematen digu nobela honek. 1936ko udatik 1937kora bitartean kokaturiko gertaera hauek lehen pertsonan kontaturik daude, Jon gazteak esanak, eta bere ikuspegitik –irakurlearen sinpatia bilatuz- ezagutu ahal izango dugu Garraitzeta (benetan Lekeito nahiko erraz identifikatu daitekeena) herrian egiten dituen lagunak, ezagutzen eta maite duen neska, herriko bizimodua... baina batez ere, nobelak duen lehen zati horretan, «Txo», gerra aurreko eta garai hartako bizimodua eta nobelako protagonistak ezagutu ahalko ditugu. Jonen osaba farozaina da, zalantzarik gabe, gaztea eta munduaren arteko lokarri sendoena. Berarekin uzten dute gurasoek, Bilbon baino hobeto egongo delakoan; eta osabaren ondoan Jonen garaiko euskaltzaleak, abertzaleak eta idazleak ezagutuko ditu, baina baita euskarazko lehen egunkaria, Jaur-laritzaren osaketa, politika kontuak edo garai txarretan ere umoreak duen garrantzia.

Liburuaren bigarren zatiak, aldiz, «Gerraren hezurrak», hilabeteka antolatuta dago, hamabi kapitulutan, 36ko irailetik 37ko abuztura bitartean. Narrazioaren tonua biziagoa da, borroka gero eta hurbilago egon ahala tentsioa eta samina nabariagoa eta presenteagoa baita, kontatzen diren istorioak historiak izan zirelako.

Bigarren gerra handiaren ondoren borrokan aritu ziren Europako herrialde askotan haurrei gertakari haien berri nola eman eztabaidatu zen, zer gertatu zen, zergatik... Michi Satrusfeld editore ezagunak esan bezala:

«faltaban muchas explicaciones acerca de la historia contemporánea y del

14 +

pasado inmediato, para ayudar a explicar fenómenos como las guerras mundiales o la guerra civil, el racismo, nazismo, subdesarrollo y un largo etcétera.

Euskaraz ere behar dira gerra horiek ulertzen lagun dezaketen liburuak; baina, errealismo kritiko korrontearen defendatzaileek behin eta berriro errepikatu duten bezala, literatura liburuak. Eta Meaberen hau literatura obra bat da. Eta hori Jonen idazkietan ikus dezakegu: «lluntzeetan, itsasargiaren gailurrean egoten naiz zeruertzari begira. Ordu horretan itsaso zilarrezkoa, edo elurrezkoa, edo esnezkoa bihurtzen da.» (56. or.); edo: «Inguruko belartzen urtzen ari zen ihintza. Itsasargia labarrean iltzatuta zegoen» (13. or.); baita euskara-erdara erabilera zuzenean (guardia zibilek, esaterako, erdaraz hitz egiten dute) nobela errealista izanik; jakina, errealismo horrek huts egiten du protagonisten euskararekin, bai ahozkoan, bai idatzizko testuak (poemen aipuak kenduta) euskara batuan baitaude; baina nobela honen helburua gerraren inguruko obra entretenigarri, erakargarri eta batez ere, gogoetara bultzatzen duen obra egitea izan da. Izan ere badira emakumeen papera errebendikatzen duten pasarteak, (Emakumeek eginiko lan guztiak komentatzean, esaterako; 76-77. or.), baina baita emakumeen ikuspuntua:

«—Emakumeak agintari bazinete ez ote litzateke gerrarik izango ba? —galdetu zion Eusebiok, uzkur.

—Ez ditugu umeak munduratzten gero zuen gerretan hiltzeko.» (29. or.).

Nobelan guztian zehar nabari da gerraren kontrako jarrera, are eta gehiago kalteak, zauriak eta minak aurrera egin ahala. «madarikatzen nuela gerra, neure bihotz guztiarekin, gerra hura eta beste edozein, orduan eta beti.» diosku Jonen liburu eder honen azken orrialdean, gerra negar egiteko garaia baita.

Xabier Etxaniz Erle

16 +



TXAKURRARI GAUEAN
GERTATUTAKO ISTRIPU BITXIA
Mark Haddon
Itz.: XABIER OLARRA
Igela, Iruñea, 2006

Ahalegina

Mark Haddon-en Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia irakurritakoan, sentipen bitxia geratu zait: alde batera, irudipena dut ez dudala uste nobela berrirakurriko dudarik eta ez dudala nire liburu gogokoenen apalean kokatuko; eta, bestera, ezin ukatu idazlearen —eta itzultzailearen— ahalegina pizgarri gertatu zaidala eta gutxitan bezala gozatu dudala liburu honekin.

Berria egunkarian Joseba Sarrionandiak behin adierazi zuen literatura ez dela tiro olinpikoa:

«ez duzu itu bakar bat eta hartara zenbat hurbildu zaren neurtzeko zirkulurik. Literaturak antz handiagoa du ilargaiari harrika egitearekin; ahaleginak ituak baino garrantzi handiagoa du, eta ez da aurrekoak jo duelako itua aldatu beharrik; hainbat poetika eta balorazio irizpide dago...».

Eta ni nago Mark Haddonek ez duela lan perfektua egin, baina bere ahalegina zinez nabarmentzekoa dela. Irudipena daukat gizartea frenetikoki aldatzen ari dela, baina literatura beti-bat —esateko molde bat da— egiten jarrai-

tzen dugula, haustura eta hurbilketa ahalegin gutxi proposatzen dugula hala idazleok nola argialetxeek, eta, ondorioz, gizartearengandik gero eta urrunago gaudela. Gutxienez, liburu honek halako haustura formalak dakar eta, egitura bitxiarekin batera, marrazkiak, planoak, eskemak, argazkiak ikus ditzakegu. Berria egunkarian ere Anjel Lertxundiri irakurri nion:

«Laster, Interneteko idazkuntza libre, solte, bridarik gabea bere tokia egiten hasiko da liburuetan ere. Gero eta ugariagoa izango da liburuetan ere blog-etako estilo zatikatua, pasarte laburrez emana, disjecta membra batzuekin osatutako diskurtsoa, jauziak eta elipsiak eginez etena oinarri duen estetika...».

Carlos Sorin zinemagileak dio berari historia ez, baina pertsonaia axola zaiola, eta pertsona ttikiak dituela batik bat gogoko. Eta nobela honetako Christopher gaztetxoak hastapenetik harritu eta liluratuko gaitu: munduko hiriburu guztiak ezagutzen ditu, eta errezitatu egin ditzake 7.507 arteko zenbaki lehen guztiak, baina hutsaren hurrengo da harremanetarako. Siobhanek laguntzen dio eskolan, aitak etxean, baina jendetzak inguratzen duenean, bere baitara bildu, eta oi-huka hasten da, hala nola Londresera amarenera egin zuen bidaia arrisku-tsuan... Idazketa lagungarria zaio, eta idazketa logiko eta matematikoaren bidez munduaren ikuspegi kasik poetikoa azalduko digu (bai ederra maitagarrien existentziaren kontrako atala -139-), izan ere bera Sherlock Holmesen antzekoa baita, eta ez haren sortzaile sir Arthur Conan Doylearen gisakoa:

«Holmesek ez du naturaz gaindikorik sinesten, hau da, Jainkoa, maitagarrien ipuinak eta Infernuko Zakurrak eta madarikazioak, zeinak ergelkeriak baitira».

Eta orain, hori guztia esan ostean, zalantza sortzen zait ez ote dudan nobela berriro ere irakurriko. Argi daukat, ostera, nobela gomendatzen hasiko naizela, bai helduei, bai gazteei.

Patxi Zubizarreta



BESTIARIOA. HILERRIKOIAK. BI NOBELA LLABUR

Karlos Linazasoro
Elkar, Donostia, 2006

Ateko bandan jitoan

Proposamen bitxia eskaini digu Karlos Linazasorok bere azken liburu honetan, lan-utzialdian dagoen Karlos izeneko liburuzain baten ahotik. Karlos liburuzain horrek literaturaren harra darama erraieran, Karlos liburuzain hark bezala. Literaturaz gaixo dagoela esan liteke. Eta hasia da ispilu-jolasa.

Duela ez hainbeste, elkarrizketa batean, Karlos liburuzainak esan zuen idazle batzuek (errealismoaren irudikeriak jota?) bizi izandakoaz idazten dutela, baina berak irakurritakoaz idazten duela. Oso koherentea liburuzain batentzat, pentsatuko du norbaitek; baina kontua ez da dirudien bezain simplea.

Liburu honetan, Karlos liburuzainak Karlos liburuzain bat jarri du protagonista eta narratzaile, hau da, egileak bere burua fikzionalizatu du narrazioaren barruan (autofikzioa deitu zion Iratxe Retolazak), baina ez kanpoko errealitateko abentura bat kontatzeko, literatura barruko aben-

tura bat kontatzeko baizik: idaztearen abentura.

Hori dela eta, testu hori klabe erre-alistan irakurriko duena harritu egingo da: ez delako, inola ere, testu erre-alista. Idazle erre-alistek fikzioz mozorrotzen zuten erre-alitatea; Karlos liburuzainak, berriz, erre-alismo apur batez jantzi nahi izan du (meta)fikzioa.

Liburuko protagonistaren helburu nagusia nobela bat idaztea da; berez ez du behar, bere bizitza literaturaz egin dagoelako; eta, azkenean, nobela bat ez, bi idatziko ditu (oso bereziak, egia esatera): liburuari izena ematen diotenak.

Diodan legez, dena da literarioa liburu honetan: euskal literaturaz dezente dakiten mus jokalaria langabetuak, figura literarioen bidez mintzatzen den Hipermegatroskiko kutxazaina, literaturaz izugarri jantzita dagoen hondeagailu-gidaria, poeta ere baden tornularia, eta abar. Umorezko metaliteraturaren edozein antologiagan derrigorrez agertu beharreko pasarteak, nire ustez.

Karlos lan-utzialdiko liburuzainari idaztea eragozten dioten bizitza-gorabeheretan idazle ezagunen baten itzala ere agertuko da, eta nobela idazteari ekiten dion aldi bakanetan, berriz, iritzi literario interesgarriak botako ditu, hala nola:

«Eta idazteko, gauza ororen gaintetik, sosegua eta bakea behar dira, patxada eta isiltasuna... Besterik ez dela behar esango nuke, gainera. Gainerakoak, musak eta etorria eta sena eta ofizioa eta talentua eta inteligentzia, literatura huts besterik ez da, literaturari buruzko literatura (edo, nahi bada, metaliteratura)» (7. or.).
Ispilua berriz ere.

Azkenean, idatziko dituen bi nobelak aforismo bilduma bana izango dira, animaliei buruzkoa lehena (Bestiariora), heriotza gai hartuta bigarrena (Hilerrikoia). Eta hauxe da, nire ustez, liburu alderririk ahulena: ez aforismo bilduma bera, Karlos liburuzaina aparta baita laburrean hitz eta esapideei bigarren eta hirugarren esanahiak ateratzen (ikus, bes-

tela, lsiltasunaren adabakiak aforismo bilduma bikaina), baizik eta aforismo horiek (meta)fikzioan txertatzeko modu bortxatu samarrean.

Linazasorok aukeratu duen literatura motak, hemendik kanpoko literaturan ibilbide luze eta emankorra izan duen arren, oso tradizio urria du euskal literaturan; baina idazleak nahi duena idazteko askatasun aldarrikatzen du, eskubide osoz, nahiz eta horren ordaina, esana duen bezala, ehun irakurle izatea den. Gainera, aukeratu duen irakurle mota (ia ahaztu zait gazteentzako liburu bat dudala hizpide) ez da, oro har, literatura hori behar bezala balioesteko publikorik egokiena.

Izan ere, liburu hau «Ateko banda» izeneko bilduma batean argitaratu da. Solapan argitzen zaigu horren esanahia: «barkua portuaren eta itsas zabalaren artean dagoenean, itsas zabalerako aldean». Metafora horrek ingelesen «young adults» deitzen dioten adin tarteari zuzenduta dagoela adierazi nahi omen du, bere kriptikotasunean. Nire ustez, gazte literatura delako horren barruan argialetxeek egin duten zatiketa misteriotsua argitzeko master bat antolatu beharko luke norbaitek: «Ateko banda» honekin batera, «Bihotz-taupadak», «Bizi-taupadak» eta «Izu-taupadak» bildumak aurki daitezke Elkar argialetxean bertan; «Perzebal», «Bioleta saila» eta «Oroimenean barrena» ditugu Erein argialetxean, eta abar. Ematen du bildumak neurrigabe biderkatzen direla irakurle mota bakoitzaren bila. Aurkituko ahal dute!

Manu Lopez Gaseni



ILARGIAREN ALABA

Toti M. de Lezea

Itzultzailea: Jose Luis Padrón

Alfaguara-Zubia, Etxebarri, 2006

Sasi guztien gainetik

Ilargiaren alaba Toti M. de Lezea idazle gasteiztarrak duela hiru urte gaztelaniaz argitaratutako *La hija de la luna* eleberrri historikoaren euskal bertsioa da. Egileak aipatu generoa landu du batik bat, arrakasta handiko obren bitartez, hala nola *La calle de la judería*, *La herbolera*, *A la sombra del templo*, eta abar. Horien guztien aurrean, ordea, Ilargiaren alaba gazteentzat pentsatu eta idatzia izan zen, eta halakotzat argitaratu da gaztelaniaz zein euskaraz.

Eleberrri honetako testuinguru historikoa XVII. mendearen hasieran Piriñoen bi aldeetan sinismen paganoen aurka Elizak egindako sarraskien ingurukoa da, oso bereziki Valle Alvarado inkisidoreak Zugarramurdi inguruan atxilotu, torturatu, Logroñora eraman eta sutzarrean erretako emakumeen historia.

Testuinguru historiko horretan,

diodanez, Madalen neska gaztea protagonista duen fikziozko istorio bat txertatzen da. Madalenen ama izan da atxilotuetako bat, eta haren atzetik abiatu da paturik ankerrenetik askatu nahian. Bidean hainbat laguntzaile eta beste hainbeste aurkarirekin topo egin du, horien artean «aspaldian jasotako jakintza batek batutako» bi andre zaharrekin, Madalenek bere helburua lortzeko ezinbesteko laguntzaileak. Lortu du ama askatzea, eta herrira itzuli dira; han, ordea, ezer ez da lehen bezalakoa. Sorgin-ehizak betiko aldatu ditu hango biztanleak.

Ikusten denez, eleberrri historikoa baino gehiago (non gertakizun historiko hutsak era nobelatuan kontatzen diren) «fikzio historikoa» da Ilargiaren alaba hau, Martínez de Lezeak idatzitako beste guztiak bezala, bide batez esanda. Hala ere, lana hain ondo dokumentatuta egotearen ondorioz, ulertzen zailak diren hitz asko erabiltzen dira, eta horien esanahia azaltzeko glosario bat jarri behar da liburuaren amaieran.

Itzulpena ere, zuzena izan arren, jatorrizko testuari oso atxikita dago, eta zenbaitetan zurruntasun inpresioa ematen du.

Laburbilduz, gure historiako garai ilun bat ulertzen laguntzen digun obra entretenigarria da Ilargiaren alaba.

Manu Lopez Gaseni



ARTURO. EPOPEIA ZELTA BAT
1. MYRADDIN EROA.
2. ARTURO BORROKALARIA.
Gidoia: Davidi Chauves
Marrazkia: Jérôme Lereculey
Koloreak: Jean-Luc Simon
Itzultzailea:
1. PEDRO DÍEZ DE ULTZURRUN
2. JON MUÑOZ OTEAGI
Saure, Legutiano, 2003

Literaturaren historian badira arrakasta handiko istorioak, eta horien artean, dudarik gabe, Arturo Erregearen kontakera dugu. Izan ere, Europako lehen nobelek badute iturburu eman-korra Arturoren istorioan eta horren frogara, Erdi Aroan zaldunen nobelen artean, Arturo Erregearen sagak izan zuen arrakasta handia. Mitoa, gaur egun ezagutzen dugun bezala, beranduxeago garatu zen, XV. Mendean, Sir Thomas Maloryk egin zuen Arturoren Heriotzaren liburuan, hain justu.¹

Geroztik, indarra galdu bazuen ere, une historiko ezberdinetan aldika-aldika azaleratzen zen, modu ezberdinetan. Ez da harritzekoa, beraz, Steinbeck idazle amerikarrak joan den mendearan lehen erdian Arturoren saga berridatzi izana.² Euskal letren artean anitz izan dira gai hau zuzen edo zeharka landu duten idazleak, baina Lertxundiren obran zein Sarrionaindiarenean, Arturoren mundua

Besteak

islaturik agertzen zaigu behin baino gehiagotan.

Edozein modutan ere, Arturo erregearen istorioa erakargarri suertatu da bertze formatoetan ere, horren adibide dugu 2005ean Antoine Fuquak zinemagile amerikarrak zuzendu zuen filma eta, euskeraz, Sauré argialetxeak orain dela hiru urte argitaratu zituen Arturo, epopeia zelta bat-en lehen bi komikiak: 1. *Myrdin eroa* eta 2. *Arturo borrokalaria*.

Egileek hitzaurretik beretik aipatzen dute beren helburua izan dela «Arturoren jatorrizko zikloa, hau da Erdi Aroko gorteko kontakizunen aurrekoa, komiki modura argitara ematea». Horretarako elezahar gaeliarrez baliatu dira, eta testuan barrena ikerketa historiko hori ederki islatzen da bai gidoian, baita marrazkietan ere.

Lehen liburukian, Myrdinn Eroak Myrdinn –ezagunago Merlin izenez-mago ezagunaren jaiotza magikoa, haurtzaroa eta gaztaroa kontatuko digute. Bigarren liburukian, Arturo Borrokalarian, berri, Arturo Erregearen lehen urteak jasotzen dira. Tono epikoa dario obra guziri, saga osoan konstante bat izanen dena, Myrdinnen zein Arturoren epopeia honetan traizioak, borrokak, magia... dena biltzen da kontaezan. Lan aipagarria da David Chauvel gidoiariak egin duena, tonoko epiko mantentzen eta elezahar gaeliarren mundua ederki islatuz. Bartzuetan haria korapilatsu gertatzen zaio irakurleari, alde batetik datu eskerga agertzen delako, eta bertetik izen gaelikoek ez baitute sobera laguntzen hariari segitzen; egileek, horretaz jakitun, komiki bakoitzaren bukaeran erantsi dute kontaezan agertu diren pertsonaien hiztegi moduko zerbait irakurleari laguntzeko.

Dokumentazio lan handia egin dute bai gidoigintzan, bai marrazkietan ere. Jerome Lereculeyk eszenaristak (hots, antzerkirako, zinerako, komikietarako eszenarioak sortzen dituen), garai mitiko hori marrazkietan sinisgarri egin



du: jantziak, osagarriak, pertsonaiein orrazkera, armak... dena landu du mailatan handiz. Horretaz gainera, zelten garai horren bizimodua, etxeak, kanpamenduak, animaliak eta paisaiak ederki landuak agertzen dira. Ene gusturako borroketa odol eta gorrimin gehiegi agertzen da komikietan, baina, bertze aldetik, marrazki landuak –frantziako linea argiaren eskolakoak–, bineten konbinazio egokia eta erritmoarekin ongi uztartutako konposizioak laguntzen dute istorioari jarraitzen. Egileen artean Jean Luc Simon komikigile ezagunagoa agertzen zaigu kolorea ematen Lereculey-ren marrazkiei.

Azken produktua ikusirik, ez legoke bat ere gaizki saga honen bertze zenbakiak, gaurgero bederatzi titulu agertu baitira frantzesez, euskeraz bagenitu. Irakurlearen esku dago bide horri laguntzea.

Migel Asiain

1. Euskeraz Erein argialetxeak 2005. urtean Gure klasikoak bilduman atera zuen Juan Kruz Igerabidek egindako egokitze bat: Artur erregearen heriotza izenarekin..

2. Gurean bi liburukitan atera zen Steinbeck-en lana, Arhur Erregearen Egintzak izenarekin, biak Igela argialetxeak argitatuak. Joseba Urteagak egin zituen bi itzulpenak.

LOS LIBROS TRANQUILOS: EL CURSO DE LA VIDA A TRAVÉS DE LA LITERATURA INFANTIL...

Pep Mollist
Anaya, Madrid, 2006

Liburu lasaiak... Ezinbesteko erreferentzia dugu Pep Molist bibliotekari katalanak negu honetan kaleratu duen liburua hau. Haur bibliotekariaren kontsultatzeko apaletan egotea gomendatzen dugun liburua.

Liburu lasaiak edo nola egin biziaren bidea haur literaturaren laguntzarekin.

Anaya argialetxeak bilduma hone-tan, «*La sombra de la palabra*»n alegia, baditu makina bat liburu interesgarri. Aurretik beste hamar saiakera, besteak beste, Teresa Duránen *Leer antes de leer*; aditu talde baten «*Bibliotecas escolares, ¿para qué?*» edo Victor Morenoren *Lectores competentes*. Guztiak ere, lan interesgarriak bitartekariei irakurketaren garrantziaz ohartzeko.

Ez dira irakurtzen astunak edo jarraitzen zailak, neurri handi batean adibide praktikoak dituztelako eta esperientzian oinarrituta daudelako. Esku artean duguna ere horrelakoxea da.

Pep Mollist-ek Manresako bibliotekan dihardu eta ofizioa zaletasun bihurtu du. Egunkari eta aldizkarietan kolaboratzaile lanak egiten ditu-ikus Behinola 13.alea-. Katalanez ipuin liburu ugari ditu, euskeraz ere bai (*Peru eta animaliak*, esaterako) eta, halaber, berea dugu gaztelaniazko *Arena en los zapatos* ipuin iradokitzaila.

Liburu lasaiak... izenburu erakar-garri honen izena ez da idazle oparo honen asmakizuna; bibliotekan etorri zitzaion irakurle gazte batena baizik. «Emadazu, liburu lasai bat, beldurtu-koen nauena, modu goxoan hunkituko nauena, barre eragin baino irribarretsu utziko nauena; azken batean... liburu atsegin bat.»

Hauxe da irakurle askok, biblio-teketara hurbiltzen direnean, eskatzen dutena: irakurketa atseginak.

Besteak



Bibliotekak, eta haur bibliotekak bereziki, ez dira toki serio eta formalak, une lasaiak igarotzeko lekuak baino. Eta badaude une goxoak igarotzeko liburu ugari. Behintzat, horretan saiitzen gara liburuak erosi baino lehen aukeraketa lanetan ibiltzen garenok.

Gure eginbeharretako bat ipuinen gai nagusia sailkatzea izaten da, hots, haur literaturazko liburuei gai batzuk ateratzea eta horrela jartzen dugu, adibidez, amesgaiztoak, edo heriotza edo gurasoen banaketa.

Liburu honek ere gai nagusiok atera eta banan-banan ukitzen ditu. Kanpo-ko azalean dagoen itsas maskorraren antzera –lasaitzeko irudi adierazgarria–, horrela entzungo ditugu soinu edo izenburu lasaigarriak. Liburu aukeratuak guztiak, gaika sailkatuz.

Egitura errepikatzen da hiru atal nagusietan:

1. Bizitzaren ibilbidea
2. Sentimenduak, izaerak
3. Ingurutzen gaituen mundua.

Sail bakoitzeko sarrera txiki bat egiten du, liburu bat aukeratzen du eta, ondoren, aipamen labur bat gehitzen dio. Amaitzeko, irakurleak dasta dezan, pasarte bat eskaintzen du eta

antzerako gaia ukitzen duten beste liburu batzuen datu bibliografikoak.

Esaterako, lana edo ofizioa hautatzeko dauden ipuinen multzoen artetik Patxi Zubizarretaren *Magalik badaki* liburua aukeratzen du idazleak. Gero, komentarioa eta idazle zein ilustratzailearen –Elena Odriozola– datuak gehitzen dizkio. Liburuaren pasarte bizi bat jarri eta «Beste ipuinak» sailarekin amaitzen da. Aipatutako egitura hau liburu guztian da berdina.

Gaineratu behar da azpimarratzen diren ipuinen azterketa 2006ko udazkenean arte egin dela. Saiakera honek 2003. urtean «Rovello» saria irabazi bazuen ere, idazleak esfortzua egin du zerrendak album berrie-kin gaurkotzeko. Klasikotzak hartzen direnetik aparte, hainbeste ezagutzen ez diren albumak ere jarri ditu, adibidez *¿Cómo es posible? La historia de Elvis* (López 2006) heriotza gaia tratatzen duen ipuin zoragarria.

Liburu hau tresna interesgarri eta baliotsua da bitartekari lanetan gabiltzan guztiontzat: irakasle, guraso, bibliotekari eta liburu-dendetako langileentzat, alegia.

Bukatze-ko, lau eranskinekin boro-biltzen da: kontsultatu dituen iturri dokumentalak, idazleen eta ilustratzaileen aurkibidea, gaien aurkibidea eta liburuan agertzen diren izenburuen aurkibidea.

Bilatzen duzun ipuina oso era erra-zean aurkitzeko moduan.

Bizitzari ekin literaturaren laguntza-rekin, hauxe da liburuaren honen helburua.

Asun Agiriano

XABIROI

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
Zamudio, 2007

Komikia gozagai

Kalean da *Xabiroi* komiki aldizkariaren 7. zenbakia. Azaroan argitara emandako zenbaki bereziaren ostean *Xabiroi* ohiko formatua berreskuratu du (ez ahaztu 6.ean, Arthur Suydanen azalaren azpian –eta Igela eta Idia istorioarekin batera–, hainbat bikoteren lan erakargarria eskaini zutela: Arantxa Iturbe & Manu Ortega; Iban Zaldua & Julen Ribas, Patxi Zubizarreta & Iñaki Olgado...). Irati eta Tele-Atoi istorio luzeak amaitzear dira, eta 7. zenbaki honetan azken aurreko atala irakurri ahal izango dugu. Dena prest, beraz, pertsonaien patua erabakitzeko. Beste istorio luzea, Harkaitz Cano eta Iñaki



Holgadoren Piztia Otzanak, urriko zenbakira arte luzatuko da, Travisen istorio korapilatsuari beste itzuli bat emanez. Batek daki nola askatuko ote den! Zenbaki honetako Komikitau-na, elkarrizketa, alegia, Afrika Bibang abeslariari egin zaio, eta ezohiko kolaboratzailearen ekarpena Antxon Olariagak egin du.

Haizea neska graffitigilearen go-goetak, Auzomorroko biztanleen pasadizoak, Hor Konposteko hildakoen aldrebeskeriak eta Haratagoko mundu magikoaren abenturak dira aldizkariaren gainerako orrialdeak osatzen dituztenak. Manu Ortega, Patxi Peláez, Asisko eta Markoren lapitzen eskutik, besteak beste, gazte eta helduon gozagai.

Pepo Urrutia

Egin zaitez Galtzagorri Elkarteko bazkide

1. Jarraian aurkezten dugun fitxa bete eta ordainketa-agiriarekin batera, gure helbidera bidali:

Galtzagorri Elkarte
Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943471487
 behinola@galtzagorri.org — www.galtzagorri.org

Izen-abizenak:.....
 Helbidea:.....
 Herria:.....Posta-kodea:.....
 Telefonoa:.....faxa:.....
 e-maila:.....
 Ogibidea:..... lantokia:.....

2. Urteko bazkide-kuotaren ordainketa egin (32 €)
 Galtzagorri Elkartearen kontu-korrontean dirua sartuz:

CAJA LABORAL – EUSKADIKO KUTXA
 sukurtsala: Loyola 15 (20.014 Donostia)
 kontu-zenbakia: 3035 0242 6 8 242 0 00247 1

Galtzagorri Elkarteko bazkide guztiak doan jasoko dituzte
 Elkartearen argitalpen guztiak.